279. zk.
Bigarren aroa
Ekainak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa

Paco Carrillo, Alarde Tradizionaleko Jeneral berria

Erreportajea

Alarde Publikoko belaunaldi aldaketa

www.irunero.com
Sar zaitez web orrian eta Facebooken

Saray Arozena
Alarde tradizionala San Juan Plazan (2015).

Argazki lehiaketa

Aritz Herrera
Larrun, Aiako Harriak eta Jaizkibel.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

PACO CARRILLO, Alarde Tradizionaleko Jenerala:

“Ardura handia da, irundarrentzat oso maitatua den zerbait irudikatuko dudalako”

Iñaki Arruabarrenaren lekukoa hartu du aurten Paco Carrillok, Alarde Tradizionaleko Jeneral karguan. Buenos Amigos konpainian desfilatu izan du beti. Soldadu gisa hasieran, eta Alferez, Teniente eta Kapitain postuetan, beranduago. Alardeko Batzordean eta Agintarien Batzordean parte hartu izan du. Urrian hautatu zuten Jeneral, eta prest dago erronkari aurre egiteko.

Kapitainen multzo batek proposatu zion Jeneral izateko hautagaitza aurkezteko. “Abentura honetan murgiltzeko konbentzitu ninduten”, aitortu du Carrillok. Urrian egindako bozketan, gehiengo osoarekin eman zioten babesa. Ilusio ikaragarriarekin hartu zuela baieztatu du, baina “ardura” handi bat sentitzen duela ere bai: “Irundarrentzat oso maitatua den zerbait irudikatuko dut. Erronka handia da, eta ahalik eta hoberen egiten saiatuko naiz”.

Babesa eman dion jendearekiko erantzukizuna sentitzen du Carrillok: “Nire kezka handietako bat da, ea gai izango naizen nigan konfiantza eta itxaropena duen jende guzti horrek emandakoa bueltatzeko”. Bestelako beldurrik ez duela esan du hasieran, baina atzera egin du ondoren, lehenengo hilabeteetan izan duen buruhauste nagusiaren berri emateko: “Ordu asko sartu behar izan ditut Jaizubia Hipikan, Itziar Juarros eta Xabi Berrotaran irakasleekin. Nik uste laster kanpin denda jarriko didatela han”.

Bestelako prestaketak ere aldatu dira Paco Carrillorentzat. Alferez, Teniente eta Kapitain izan da lehenago, baina Jeneral izateak oso bestelako dimentsio bat duela argitu du: “Ez du zerikusirik. Kanpotik ikusten duzunean, Jeneral izateak dakarrena imajina dezakezula uste duzu. Gero konturatzen zara hori baino askoz gehiago dela”. Ekipamendua bera, zeharo ezberdina da, adibidez: botak, ezproia, usta, aginte makila etab. Horietako asko oparitu egin dizkiote, eta oso eskertuta dago Carrillo.

Berarentzat aurten aldatu ez den zerbait, Kantinerari hautatua izan dela jakinarazteko momentua izan da. Buenos Amigos konpainiakoarekin egin izan du azken urteotan, eta aurten, Jeneral gisa, Junkal Torres Zalditeriako Kantineraren etxera joatea egokitu zaio. “Oso esperientzia ederra da. Momentu horretan, Meltxor, Gaspar, Baltasar, Olentzero eta Aita Noel batera izango bazina bezala sentitzen zara. Nesken eta senideen erreakzioa ikustea izugarria da”, nabarmendu du Carrillok.

Unean-unekoa bizi nahi du

Hizlari fina da Jenerala, umoretsua eta berritsua. Horregatik, ekainaren 28ko kantineren aurkezpenean eman beharko duen hitzaldian bere burua kontrolatu beharko duela onartu du: “Nik orduak emango nituzke hizketan. Beraz, erronka da egin ditudan zirriborroak moztea. Bestela, ekainaren 30era arte egon naiteke Zabaltza plazako kioskoan hitz egiten”. Hurrengo eguna, ekainaren 29a, berezia izango da berarentzat, armen ikuskatzearekin. “Eta luzea ere bai”, zehaztu du, barrez: “Konpainiarekin ezagutu dudana parte txiki bat besterik ez da. Baina orain dena bizi ahal izango dut. Ikaragarria da, 15:00etatik 22:00ak arte, zazpi orduz ariko gara auzoz-auzo. Oso momentu ederrak biziko ditugu”.

San Martzial egunari dagokionez, zaila iruditzen zaio momentu gogokoena aukeratzea. Une bakoitzarekin gozatzen ahaleginduko dela baieztatu du: “Alardeak duen onena da milaka une eder dituela. Gainera, ez dute zertan urtero berdinak izan. Sentimendu bakar horien batura da Alardea handi egiten duena”. Pixka bat estututa, ordea, momentu horietako bati buruzko xehetasunak eman ditu: “Eguerdian mendira igotzea, adibidez, betidanik gustatu izan zait. Gurasoekin igotzen ginen txikitan, oinez. Eta aurrerantzean ere urtero igo izan naiz. Mendian egiten dugun Alarde txiki hori ikaragarri polita da”. Hilabeteetako prestaketaren ondoren, aginte makila hartuta Alardea zuzentzeko gogoz dago Paco Carrillo.

Hondarribia kalea, 41 - Irun
943 61 01 49
GORA SAN MARTZIAL!
prink

Olaizola Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Jaietako alpargaten ekoizle

Calzanor fabrikatik irteten dira sanmartzialetan Irungo kaleetan ikus daitezkeen alpargatetako asko

Ilara handiak sortu ohi dira Irungo Calzanor lantegiaren atarian, sanmartzialetako egun nagusien aurretik. Urtean zehar produkzio anitza eta esportaziora bideratua egiten baldin badute ere, ekainerako zinta beltz edo gorridun alpargata zuriak prestatzen dituzte, irundarren beharrak asetzeko. Juncal Aguirre arduradunak denborarekin hurbiltzeko gomendatu du, azken egunetako ilarak jasan behar ez izateko.

1989an sortu zen Calzanor, alpargata klasikoak egiten zituen aurreko enpresa batek ateak itxi ondoren. Juncal Aguirreren senarrak lan egiten zuen fabrika hartan. "Nagusia frantsesa zen. Halako batean lantegia itxi eta desagertu egin zen", azaldu du. Orduan, enpresako zenbait langile elkartu ziren, kooperatiba bat martxan jartzen saiatzeko asmoz. Proiektua ez zen aurrera atera, eta senar-emazteen artean hartu zuten enpresa. Alpargata klasikoa egiten hasi ziren. Sanmartzialetako alpargatak, tartean.

Hasieran, festetako alpargatak "lagunei" eta "senideei" saltzen zizkietela adierazi du Aguirrek. Ez zuten inolako propagandarik egiten, baina pixkanaka, ahoz-ahokoari esker, gero eta bezero gehiago pilatuz joan ziren sanmartzialetan. "Azkenean, denda jarri behar izan genuen fabrikaren atarian", argitu du Calzanorreko arduradunak. Azken urteotan, jende mordoa hurbiltzen da ekainaren amaieran, alpargatak erostera. Gehienak azken bizpahiru egunetan joaten direla onartu du Juncal Aguirrek: "Orduan egoten da benetako saltsa hemen. San Pedro egunean ere bezero asko hurbiltzen dira. Kanpoan bizi den jendea izaten da, San Pedro eta San Martzial egunak pasatzera etortzen dena".

Alpargata klasikoak dira sanmartzialetakoak, baina aldaera txikiak ere barneratu dituzte. Alardeetako soldaduentzako alpargata takoidunak, esaterako. "Duela zenbait urte atera genituen, eta arrakasta ikaragarria izan dute", aitortu du Aguirrek. Emakumezkoek, azken aldian, alpargata gorri asko erosten dituztela gaineratu du. Kantinerentzako, alpargata pertsonalizatuak egiten dituzte: "Soineko eta guzti etortzen dira, entseguetarako alpargatak eskatzera". Jende gehiena urtero joaten dela baieztatu du Juncal Aguirrek, eta askotan, urte bakoitzeko bi pare erosten dituela, euria egingo balu, ordezkoa edukitzeko.

> "Arrakasta ikaragarria izan dute alpargata takoidunek"
> Juncal Aguirre, Calzanorreko arduraduna

Bezerorik onena, Japonia

Sanmartzialetako alpargatez gainera, oso bestelako produkzioa dute Calzanorren, urtean zehar. Diseinuzko alpargatak egiten dituzte, batez ere, esportatzeko. "Txinako inportazioak heltzen hasi zirenean, alpargata klasikoa alde batera utzi behar izan genuen. Kalitate okerragoa zuten Txinako alpargatek, baina askoz merkeagoak ziren. Ezin genuen haiekin lehiatu", argudiatu du Aguirrek. Horregatik heldu zioten diseinuari. Alpargata bereziak egiten hasi ziren, material, forma eta kolore ezberdinekin.

Gaur egun, produkzioaren %80 esportatu egiten dute. Europako herrialdeetara, Amerikara, baina batez ere, Japoniara. "Bezero onenak dira", aitortu du Juncal Aguirrek. Espainiako Estatuari dagokionez, El Corte Inglés enpresa da bezero nagusia. 150.000 pare egiten dituzte, batez beste, urte bakoitzeko. Kopuru handia da, kontuan hartuta, oinetakoen industrian tradiziorik ez duen inguru batean dagoela Calzanor. "Errioxan edo Alacanten badaude fabrikak, baina hemen ez", azaldu du Aguirrek. Horregatik, orain arteko martxari eustea lorpena dela baieztatu du. Momentuz, alpargatak topatzeko arazorik ez da izango sanmartzialetan.

Ez du kamera utziko

Erretiroa hartu duen arren, San Martzial egunean argazkiak ateratzen jarraituko du Martin Goikoetxea "Goiko" argazkilariak

Berrogei urte baino gehiago eman ditu Martin Goikoetxea "Goiko"k sanmartzialetan argazkiak ateratzen. Beratarra sortzez, Irungo Sindikalean egin zituen ikasketak, eta harreman estua izan du, aurrerantzean, hiriarekin. Erretiroa hartu berritan, 876 argazki eman dizkie Alarde Tradizionalaren arduradunei. Goikoren 40 argazkirekin, "Beratar bat sanmartzialetan" erakusketa antolatu dute Irun Factoryn. Ekainaren 19ra arte ikus daiteke. Argazkilaritza profesionaletik erretiratuta ere, San Martzial egunean argazkiak ateratzen jarraituko du Goikoetxeak.

Nola hasi zen Irunekiko eta Alardearekiko zure harremana?

Sindikalera etorri nintzen 1963an. Serapio Mujikan egon nintzen bizitzen, bederatzi urtez. Orduan, oporrak ematen zizkigutenean, ziztu bizian Berara joaten nintzen, eta ez nituen sanmartzialak Irunen pasatzen. 1970eko hamarkadan argazkilaritza estudioa eta denda jarri nituenean, orduan hasi nintzen Alardearen munduan murgiltzen. Hasieran dozena erdi argazkilari besterik ez ginen ibiltzen.

40 urte baino gehiago pasa dira argazkilaritzan hasi zinenetik.

41 egin ditut kotizatuta. Noiz jubila nintekeen begiratzera joan nintzenean, muga gainditua nuela esan zidaten, eta nahi nuenean jubilatzeko. Estudioarekin eta dendarekin ez dut jarraituko, baina badaude ekimen batzuk ez ditudanak alde batera utziko. Alardean eta estropadetan, adibidez, argazkiak ateratzen jarraituko dut.

Alardearekin lotutako bitxikeriaren bat konta dezakezu?

Urte batean ezkontza bateko argazkiak atera behar izan nituen San Martzial egunean, Donostian. Beraz, goizean, Alardeko argazkiak atera ondoren, kotxera joan nintzen, arropa aldatzera. Nafarroa Ibilbidean zegoen kotxea, eta etxe bateko balkoitik ikusi ninduten. Donostiatik bueltan, leku berean aparkatu nuen, eta berriro sanmartzialetako arropa janzten ikusi ninduten. Ea zertan ari nintzen galdetu zidaten, eta azalpenak eman nizkien. Bazkaldu gabe nengoenez, haien etxera gonbidatu ninduten kafea eta tarta hartzera. Aurrerantzean, harremana mantendu izan dut familia harekin.

> "20-30 karrete erabiltzen nituen San Martzial egunean"

Teknologiari dagokionez, ikaragarri aldatu da argazkilaritza.

Karreteen garaian, ez nahasteko, eskuineko patrikan erabili gabekoak eramaten nituen, eta ezkerrekoan erabilitakoak. Karretea aldatzen nuenean, etiketa jartzen nion, zenbakiarekin. 20-30 karrete erabiltzen nituen San Martzial egunean. Gero laborategira bidali beharra zegoen, eta zer etorriko zen itxaron.

Nola egin zenuen kamera digitaletarako trantsizioa?

Egun batetik bestera erabaki nuen tren hura hartu beharra zegoela. Lehenengo argazkia atera eta pantailan ikusi nuenean, ikaragarria izan zen. Hasieran biak eramaten nituen, digitala eta analogikoa. Orain ere bi kamera eramaten ditut normalean, baina digitalak biak. Angelu handiarekin bat, eta teleobjektiboarekin bestea, objektiboa aldatu behar ez izateko. Askoz erosoagoa da.

Beratik etortzen zara San Martzial eguneko goizean?

Niretzat San Martzial eguna 4:30etan hasten da, Beran, Irunera etorri eta kotxea aparkatu behar izaten dudalako. Urteren batean Alundan gelditu izan naiz, kafea hartzeko eta Bidasoa konpainiako lagunak agurtzeko. Baina kasu horretan, ez naiz Diana entzutera iristen. Beraz, ahal dudan lekuan aparkatzen dut Irunen, eta San Juan plazara igotzen naiz. Dianan argazkilari gutxi egoten gara, eta Bandakoek ezagutzen gaituzte. Gero Santiagora jaisten naiz, kuadrillakoekin gosaltzera. Handik San Martzial aldapara joaten naiz, eta Alardea hasi aurreko argazkiak ateratzen ditut.

Alarde Tradizionala: Armen ikuskatzea eta entseguak

Armen ikuskatzea EKAINAK 29

ZALDITERIA
San Juan plaza 15:50
URANZU
Uranzu kalea 16:00
AMA SHANTALEN
Urdanibia plaza 16:05
BEHOBIA
Mª Juncal Labandibar 16:25
BIDASOA Alunda 16:50
AZKEN PORTU
Dario de Regoyos 17:20
BUENOS AMIGOS
Artiako zubia 17:35
MEAKA Ibarrola 17:45
OLABERRIA Estebenea 18:35
SANTIAGO
Prudencia Arbide 18:50
ARTILLERIA
San Juan 19:00
LAPITZE
Alai-Txoko parkea 19:25
BELASKOENEA
Belaskoenea ikastetxea 19:40
BENTAK
Ezurriki Kalea 19:55
ANAKA F. Iratxeta 20:15
SAN MIGEL A. Anguera plaza 20:30
REAL UNION
Zabaltza 20:45

KONPAINIA	Ekainak	Ekainak	Ekainak	Topalekua	Ordua
DANBORRADA		24 (23:00)	27 (22:00)	Urdanibia - San Juan	
BANDA	21 (21:30)	24 (23:00)		San Juan-Urdanibia	
BEHOBIA	20	21	22	Kaiola taberna	21:00
BENTAK	18	22	23	Ongi Etorri taberna	21:30
MEAKA	20	21	22	Errota Zahar	21:00
BIDASOA	20	21	22	Alunda	21:00
SAN MIGEL	20	21	22	Geltoki kalea	20:45
OLABERRIA	17	20	22	Estebenea	20:30
AMA SHANTALEN	20	22	23	Urdanibia plaza	21:15
ANAKA	20	21	22	Aiako Harriak kalea	21;00
BUENOS AMIGOS	20	21	22	Erromes plaza	21:15
URANZU	20	21	22	Uranzu kalea	21:15
SANTIAGO	20	22	23	Platanoen plaza	20:45
LAPITZE	21	22	23	Aduana, 58	21:15
REAL UNION	20	22	23	Zabaltza plaza	21:00
AZKEN PORTU	20	21	22	Auzo elkartea Pio Baroja kalea	21:00
BELASKOENEA	20	21	22	Auzo elkartea	21:00

ARRANKADILLA, 25ean. Banda eta Danborrada batera, 24an, 23:00etan Urdanibian.

Alarde Publikoa: Armen ikuskatzea eta entseguak

Armen ikuskatzea EKAINAK 29

ZALDITERIA
16:00 Zabaltza plazan.
SANTIAGO
16:30 Triangelu plazatxoan.
BIDASOA
17:00 Antonio Valverde kalean.
AMA XANTALEN
17:15 Urdanibia plazan.
OLABERRIA
17:25 Victoriano Juaristi kalean.
ARTILLERIA
17:50 San Juan plazan.
LAPITZE
18:25 Pio XII plazan.
LANDETXA
19:07 Bizkaia kalean.
ANAKA
19:40 Puiana hiribidean.

KONPAINIA	Ekainak	Ekainak	Ekainak	Topalekua	Ordua
BIDASOA	20	22	24	Palmera Montero, Tahonaren ondoan.	20:30
LANDETXA	21 (20:00)	23 (20:30)	25 (20:00)	Bizilagunen Elkartea	
OLABERRIA	21	23	24	Willy ostatua	20:30
AMA XANTALEN	17 (20:30)	21 (20:30)	23 (20:00)	Peña kalea	
LAPITZE	17	22	24	Pio XII plaza	20:00
ANAKA	20	22		Txanaleta plaza	20:30
SANTIAGO	18	21	22	Triangelu plaza	20:30
DANBORRADA	27			Peña kalea	21:00
BANDA eta DANBORRADA	29			Peña kalea	21:00etan, Urdanibia plazan

Transmisioa zainduz

Badator belaunaldi aldaketa Alarde Publikoko agintari postuetan

Alarde Publikoko parte hartzaileen kopurua handituz doa, pixkanaka. Gero eta gaztetxo gehiago ikus daitezke konpainietako lerroetan. Agintari postuetan, ordea, beteranoak dira nagusi. Erreleboa emateko lanean hasi dira batzuk, dena den, gazteen indarrari eta ilusioari paso emanez. Tino Zamora aurten izango da, azken aldiz, Santiago konpainiako Kapitain. Gertu izango du Francisca Alzamora, adi-adi, bere lekua hartuko baitu datorren urtean.

Bidasoa konpainiako Kapitain izateari utzi ondoren, eroso hartu zuen eskopeta Tino Zamorak. Orduantxe ekin zioten, ordea, Santiago konpainia eratzeko lanari. Auzoko lauzpabost lagunen arteko kontua izan zen, hasieran. "Erdi txantxetan hasi ginen, baina jendearekin hitz egiteari ekin genionean, ideiak zentzua izan zezakeela kusi genuen", azaldu du Zamorak: "Semealabengatik edo beste arrazoiengatik desfilatzeari utzi zion jende asko zegoen auzoan. Baina Santiago konpainia martxan jartzekotan, aterako zirela baieztatu ziguten". 2014an sortu zuten konpainia, eta ehun kidetik gora izan zituen lehen urtean. "Sekula desfilatu ez zuen jendea, edo desfilatu gabe denbora zeramana bildu genuen, batez ere", argitu du Zamorak.

Sablea hartu behar izan zuen berriro, konpainiak proposatuta, bere esperientzia baliagarria izango zelakoan: "Laguntza emateko konpromisoa hartu nuen, baina argi utzi nuen bizpahiru urte egingo nituela, eta gero gazteei pasako niela lekukoa". Karmele Tolosa Tenientea izan du ondoan, denbora horretan. "Bere aita Santiago konpainiako Teniente izan zen urtetan, eta ilusio berezia zuen", adierazi du Zamorak. Aurten azken aldiz izango da Kapitain, ordezkoa lortu duelako. Francisca Alzamora da, eta ondo ezagutzen dute elkar, konpainiako lehen Kantinera izan baitzen, 2014an. Aurreneko aldiz desfilatu zuen orduan. Esperientzia ederra izan zela esan du: "Nik denbora neraman desfilatu nahian, baina ez nekien non edo norekin. Oso urte polita izan zen. Konpainia berria zen, ez genekien dena ondo aterako zen. Hala ere, giro bikaina izan genuen azkenean".

Kapitain izateko proposamena luzatu zitzaionean, Alzamorak ez zuen zalantzarik izan: "Gazteek ardurak hartzea positiboa da. Aurrekoek lan handia egin dute, baina iraganean geldituko bagina, ez genuke aurrera egingo". Ikasteko azken urtea izango du aurten, datorren urtean Tino Zamora ordezkatu aurretik. "Maisu bikaina" izango duela adierazi du Alzamorak. "Bi konpainia gidatu ditu jada", azpimarratu du. Zamorak bermatu du arreta handia eskainiko diola ondorengoari. Ez zaiola informaziorik edo irakaspenik faltako. "Beti pentsatu izan dut erreleboa ez dela besterik gabe pasa behar. Gauza asko daude irakasteko", gaineratu du.

> "Argi utzi nuen bizpahiru urte egingo nituela, eta gero gazteei pasako niela lekukoa"
> Tino Zamora, Santiagoko Kapitaina

Virginia Bercedo, erreferente

Tino Zamorak Francis Alzamorarekin egingo duen lanak, badu aurrekaririk. Bidasoa konpainiako kapitain izateari utzi zionean, berdina egin zuen Virginia Bercedorekin. Aurten, laugarren urtea izango du dagoeneko Bercedok, bere azkena. Emakumezko Kapitain bakarra izango da Irungo Alarde Publikoan. Horregatik, eta aspaldiko laguna duelako, erreferente izango duela aitortu du Francis Alzamorak: "Bere lekukoa ere hartuko dut, neurri batean". Lagunari eman dion aholku nagusia azaldu du Virginia Bercedok: "Mundu guztia ez da berarekin ados egongo, ezinezkoa da hori. Berak erabakiak hartu beharko ditu, eta ondo aztertutako arrazoi jakin batzuengatik egingo du".

Ilusioz biziko du Virginia Bercedok bere azken urtea. Pena puntu batekin ere bai. Hala ere, pozik dago, Alardearen beste ikuspegi bat ezagutzeko aukera izan duelako. Zeharo ezezaguna, jende askorentzat: "Ez duzu berdin bizitzen. Agintari postua duzunean, Alardearen gaiarekin urte erdia ematen duzu. Lan eta denbora gehiago eskatzen ditu". Azken hilabetean sartuta, bilerak astero izaten dituztela adierazi du Bercedok: "Ia etxekoak baino gehiago ikusten ditut Alardeko lagunak. Azkenean, sanmartzialetako familia modukoa osatzen dugu, ordu asko pasatzen ditugulako elkarrekin". Ardura handiagoa ere badu Kapitain izateak. "Badakizu, konpainian arazoren bat sortuz gero, zu zarela erantzulea", nabarmendu du. Alzamoraren ideia berdina azpimarratu du, dena den, Bercedok. Gazteen ikuspegi freskoa beharrezkoa dela.

Batera biziko dute

Irati Icardo eta Ane Unanue lagunak urte berean izango dira Kantinera, Alarde Publikoan

Kuadrillan Kantinera edukitzeak poza eta ilusioa eragiten ditu gehienetan. Lagun taldea pixka bat aztoratu ere egin dezake. Baina urte berean bi edukitzea, batzuentzat, eromena izan daiteke. Irungo Alarde Publikoan gertatu da aurten, Ane Unanue eta Irati Icardo lagunak batera izango baitira Kantinera. Unanue Zalditerian, eta Icardo, Bidasoa konpainian.

Aldi berean izango zarete kantinera. Nola hartu duzue albistea?

ANE UNANUE: Bagenekien biak aurkeztuko ginela, eta nola biziko genuen adostu genuen, duela zenbait hilabete. Ahalik eta gehien disfrutatzea jarriko dugu beste edozeren gainetik. Egia da pena ematen digula, niri Iratiren urtea %100ean bizitzea gustatuko litzaidakeelako, eta alderantziz.

Dena den, ni Zalditerian aterako naizenez, ez dut entsegurik edukiko, eta kuadrillakoek ez dute erdibitu behar izango. Gainera, Iratiren entseguak ikusi ahal izango ditut, eta bere ondoan aterako naiz egun batean.

IRATI ICARDO: Gauza onak ere edukiko dituela pentsatu behar dugu. Ekainaren 28ko Kantineren aurkezpena, adibidez, batera biziko dugu. Eta 29an ere topo egingo dugu, Jeneralak Bidasoa konpainiaren armen ikuskatzea egiten duenean. Momentu berezia izango da hori.

Aspaldiko asmoa zenuten Kantinera ateratzea?

IRATI ICARDO: Egia esan, nik txikitatik nahi nuen Kantinera izan. Nire amona, nire izeba, eta nire birramona Kantinera izan ziren. Duela hiru urte, nire ahizpa ere atera zen, Bidasoan, baita ere. Bere ondoan desfilatu nuen, eta oso-oso polita izan zen.

ANE UNANUE: Nire gurasoak eta familia ez dira irundarrak, eta ni naiz etxean festa gehien bizi duena. Baina betidanik ikusi izan ditut bi Alardeak, eta Zalditeriako Kantinerarena izan da beti, niretzat, figura erakargarriena.

Argi izan duzue, beraz, Zalditerian eta Bidasoan atera nahi zenutela?

ANE UNANUE: Zalantzarik gabe. Txikitatik gustatu izan zaizkit zaldiak, eta oso eroso sentitzen naiz zaldi gainean. Aurtengoa ezberdina izango da, eta egia da hasieran arraroa dela amazona aulkiarekin joatea. Dena den, behin postura egokia harrapatuta, ez dago arazorik.

IRATI ICARDO: Desfilatzen hasi nintzenean, Ama Xantalenen atera nintzen. Baina nire aita Bidasoan atera izan da beti, eta nire ahizpa Bidasoan izan zen Kantinera. Urte horretan Bidasoan atera nintzen, eta aurrerantzean nire konpainia izan da. Gustuko dut, ez delako konpainia arrunta. Irungo bandera hartzeko momentua oso berezia da.

Prestaketei dagokienez, zer iruditu zaizue zailena?

IRATI ICARDO: Hiru entseguetarako arropa eta oinetako egokiak aurkitzea. Orokorrean, prestaketak ez dira horren konplikatuak, denborarekin eginez gero, ez dago arazorik. Bestalde, Kantineren Batzordeak asko laguntzen digu. Aholku eta truku pila ematen dizkigute. Xehetasunak dira, baina asko laguntzen dute.

ANE UNANUE: Bitxia dirudi, baina niretzat, gauza zailenetariko bat, ekainaren 30ean bazkaltzeko lekua topatzea izan da. Guk San Martzial egunean ez dugu familia bazkari handirik egiten, baina aurten senide asko etorriko dira, eta lekua aurkitzeko larri samar ibili gara. Erdigunean ez zegoen tokirik, eta hiriaren kanpoaldeko jatetxe batean lekua lortu dugu azkenean.

Soldadu atera zarete biak, Kantinera izan aurretik. Nola hasi zineten desfilatzen?

IRATI ICARDO: 2010ean hasi nintzen ateratzen, txilibitoarekin. Ikusten nuena gustatzen zitzaidan. Gainera kuadrillako bat desfilatzen hasi zen orduan, eta animatu egin nintzen.

ANE UNANUE: Joan den urtean atera nintzen lehen aldiz. Txikitatik gustatu izan zaizkit Alardeak. Lagun bat Kantinera atera zenean gehiago murgildu nintzen festan, eta barrutik ezagutzeko gogoa sartu zitzaidan. Hurrengo urtean desfilatzea erabaki nuen.

Zer nolako esperientziak bizi izan dituzue Alardean?

ANE UNANUE: Ordura artekoarekin konparatuta, oso esperientzia desberdina izan zen. Kanpotik esaten da berdin disfrutatzen dela, baina ez da gauza bera. Kontatzen dizute, eta imajina dezakezu, baina nik behintzat, ez nuen horrenbeste gozatzea espero.

IRATI ICARDO: Gogoratzen dut lehenengo urteetan oso urduri jartzen nintzela, bai goizean, baita arratsaldean ere. Hala ere, oso gustura atera izan naiz beti.

Zer aldatuko da aurten zuentzat?

IRATI ICARDO: Soldadu zarenean oso ondo pasatzen duzu, asko disfrutatzen duzu. Baina Kantinera zarenean protagonista zara, denek txalotzen zaituzte, eta alde horretatik, bereziagoa da. Ni oso urduria naiz orokorrean, eta ez dut pentsatu nahi aurten nola jarriko naizen.

ANE UNANUE: Jendeak ez du soldaduen aurpegietan arreta jartzen. Oharkabean pasatzen zara. Kantinerek, berriz, begirada guztiak jasotzen dituzte. Hori da alderik handiena.

280. zk.
Bigarren aroa
Ekainak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Nagore Tejedor, Alarde Tradizionaleko Meakako Kantinera

Kirolak
San Martzial igoera 40. urtez

Beste urte batez, sanmartzialak Irunen

4-5 San Martzial eguna iraganeko argazkietan
7 Kirolak. Berri Laburrak
8-9 Erreportajea Eskaintza musikala sanmartzialetan
10 Caser Anaka
11 Erreportajea Herri Bazkaria
14 Gazte informazioa
15 Sanmartzial jaietako egitaraua

www.irunero.com
Sar zaitez web orrian eta Facebooken

Eskaintza bereziak
DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK
Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.

HADE

Sanmartzialetan ere, Euskaraz!

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302) | (Matrikula tlf.) 943-635-266 | herrijakintza@gmail.com

Gipuzkoa Hiribidea atzo eta gaur

Irun atzo Irun gaur

IUA: 566137

IUA:IUA:56614

1979an Irungo Udaleko Osoko Bilkurak kale honi Gipuzkoa Hiribidea izena jartzea erabaki zuen, Batzorde Iraunkorrak, J.L. Ociok eta A. Aranburuk egindako azterketa baten ondoren.

Iruni dagokion probintziaren omenez du izen hori, eta gure hiritik irteteko bide naturala denez, lurralde historikoko beste herriekin komunikatzeko balio du kale honek. Irun, administrazioari dagokionez, beti Gipuzkoa barnean egon izan ez bada ere, horregatik irundarrek ez diote inoiz utzi gipuzkoar sentitzeari.

Izen hau ematea erabaki zenean, Txabi Etxebarrieta izena emateko aukera ere aztertu zen, bereziki H.B. taldeak defendatuta. Azkenean, gaia bozketara eraman ondoren, 13 boto Gipuzkoa izenaren alde eta 8 Txabi Etxebarrietaren alde eman zituzten. Guardia Zibilekin izandako enfrentamenduan tiroz hildako lehen ETAkidea izan zen Txabi Etxebarrieta. Alkate jaunak azaldu zuen ez zeukala zentzurik, gudari guztiek bazutelako kale bat denak biltzen zituena: Gudari kalea.

Lehenago, kale honek beste izen batzuk eduki zituen. “Avenida Real” edo “del parque”. Ofizialki onartu ez ziren arren, 20ko hamarkadan Irun zabaltzea proiektatu zenean egindako planoetan agertzen ziren.

1931. urtean “Avenida 14 de abril” izena jarri zioten ,Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zen egunaren omenez.

1937. urtean “Avenida del Generalísimo” izena hartu zuen, Francoren omenez.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

NAGORE TEJEDOR, Alarde Tradizionaleko Meaka konpainiako Kantinera:

"Momentu bakoitzarekin gozatu nahi dut, datorren bezala"

Seigarren aldiz aurkeztu dute aurten Nagore Tejedor Davila, Alarde Tradizionaleko Meaka konpainiako Kantinera izateko. Kostata, baina azkenean aspaldiko ametsa bete du. San Martzial egunean aita, lehengusua eta mutil-lagunaren aita izango ditu ondoan. Mutil-laguna gertu izango du hala ere, Meaka konpainiako banderina eramango baitu. Beste bitxikeria bat ere konta dezake Nagore Tejedorek. Caser Anaka adinekoen egoitzan egiten du lan, eta urtero sanmartzialetako jarduerak prestatu ohi ditu. Aurten bera omenduko dute egoiliarrek eta lankideek.

Behin eta berriro saiatu izan zara Meakako kantinera izaten. Ez duzu etsi.
Egia esan, aurreko bost urteetan zorterik izan ez nuenez, aurten ez nuen ezer ere espero. Ezusteko handia izan da, eta oso pozik nago horregatik. Urte askotan saiatu izan direnak amorerik ez ematera animatuko nituzke. Haien ilusioa da, eta merezi du.

"Urte askotan saiatu izan direnak amorerik ez ematera animatuko nituzke"

Nolakoa izan zen aukeraketaren eguna?
Lanetik atera eta familiarekin zerbait hartzera joan nintzen. Etxera iritsita, txirrina jo zuen norbaitek. Atarira joateko eskatu zidaten, zakurra eta haurrak gurutzatu zitzaizkidan bidean, eta heldu nintzenean, mundu guztia ikusi nuen bertan: kapitaina, aita, lehengusua, mutil-laguna, bere aita etab. Galdera ezaguna egin zidaten, eta baiezkoa eman nuen segidan. Hortik aurrera, jende pila bat sartu zen etxean, eta ospakizun ederra egin genuen.

Zein izan zen hurrengo egunetan egin zenuen lehenengo gauza?
Entseguetarako soinekoak bilatzera joan nintzen. Aste horretan bertan, kantinera jantzia probatu nuen.

Nolakoa izan zen zure burua kantinera jantziarekin ikustea?
Pixkanaka probatuz joan nintzen, baina dena batera jantzita nire burua ispiluan ikusi nuenean, ilusio ikaragarria sentitu nuen.

Caser egoitzan lan egiten duzu, eta urtero kantinera hautatzen duzue egoiliarren artean. Nola hartu dute?
Hori da, urtero nik antolatu izan dut bozketa, lore-sorta eman izan diot kantinerari, jantzia probatzen lagundu etab. Pentsa zer nolako ilusioa egin dien egoitzan. Aurten bi kantinera daude Caserren, eta batera desfilatuko dugu.

Laster hasiko zara entseguekin. Prest al zaude?
Bai, ekainaren 20an, 21ean eta 22an izango ditut, denak segidan. Hegan pasako zaizkit. Soinekoak prest ditut pertxa batean, oinetakoekin. Aita, mutil-laguna,

"Kantinera jantzita nire burua ispiluan ikusi nuenean, ilusio ikaragarria sentitu nuen"

lehengusua eta mutil-lagunaren aita eramango ditut ondoan.

Ekainaren 28a, 29a eta 30a ere segidan etorriko dira. Zer espero duzu?
Ez dut ilusio handiegirik egin nahi. Momentu bakoitzarekin gozatu nahi dut, datorren bezala.

San Martzial egunean mutil-laguna konpainiako banderinarekin aterako da. Nolakoa izango da esperientzia?
Izugarria izango da, bakarra. Ez dakit horrelako beste kasuren bat eman den, baina oso polita izango dela uste dut.

Zein da gehien espero duzun momentua?
Elizara jaitsiera da gehien gustatzen zaidanetako bat. Bertan ikusi izan dut Alardea, askotan.

Bi aste dituzu oraindik, aurrekoaz gozatzeko.
Hori da. Egun bakoitzaz eta une bakoitzaz gozatu nahi dut. Gainera, nire ingurukoekin elkarbanatu nahi dut ilusioa.

Caser
RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Historia irudietan

IUA: 13055

IUA: 1575

1.- 1954an, Ricardo Rodriguez Jenerala San Juan plazan.
2.- Antonio Maria Gil-Rodrigo Jeneralaren laguntzailea, 1946an.
3.- Conchita Olaguibel, Zalditeriako Kantinera, 1939-40 urtean.
4.- 1910. urtea baino lehen, San Martzial jendez beteta.
5.- Bentak konpainiako Kantinera ume batekin, 1959an.
6.- Mende hasierako argazkia San Martzial mendian.
7.- Artilleria Bateriako kantinerak gurdiz egiten zuen Alardea (1959).
8. - San Pedro eta San Martzial jaietako kartela 1976an.

IUA: 27361

IUA: 1781

IUA: 26363

IUA:1634

1 IUA: 52922

2

IUA: 40151

3

IUA: 48987

6 IUA: 52875

4

IUA: 27291

5

IUA: 38652

1.- Patxo Rodriguez Jenerala, 1976 edo 1977 urtean.
2.- Bidasoa konpainia Irungo banderarekin (1992).
3.- Danborrak eta pifanoak mende hasieran.
4.- Deskarga San Juan Plazan, 1985 urtean.
5.- Eliza kalea mendearen hasieran.
6.- Alardea 1978 urtean, Colon Ibilbidetik.

Ermitaraino korrika, berrogeigarrenez

Ekainaren 25ean izango da San Martzialera igoera

Kirol lehiaz aparteko bestelako osagaiak ditu Super Amara-BATek jaietan antolatzen duen San Martzialera igoerak. Festetako ohitura bat gehiago da ia urtero parte hartzen duten atleta askorentzat, baita animatzera gerturatzen diren ikusleentzat ere. Jai giroa izaten da gero helmugan, musika, txistorrada eta guzti. Osagaien uztartze aproposa dela eta bete ditu 40 urte, formatuan eta ibilbidean ia inolako aldaketarik jasan gabe.

Parte hartzaile eta ikusle leialak ditu San Martzialera igoerak. 125-140 korrikalariren bueltan ibiltzen da urtero. “Kopurua ez da hazten, baina behera ere ez du egiten”, adierazi du Ibon Muñoz Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko kirol zuzendariak. Beheraldi bat izan zuen, ordea, parte hartzeak, igande goizean egiten zen garaian. Larunbateko afarien eta parranden eraginez, urte batean 70 parte hartzaile baino ez zituen izan, eta antolatzaileek larunbat arratsaldera aldatzeko erabakia hartu zuten. “Kopuru arruntetara bueltatu zen orduan”, argitu du Muñozek.

Duela zenbait urte, beste arerio indartsu bat sortu zaio igoerari: Betti Gottik antolatzen duen Herri Bazkaria. “Ez dakigu zenbateraino murrizten duen parte hartzea, baina argi dago eragina duela”, aipatu du klubeko Gorka Sotok. Hori dela eta, etorkizunean lasterketa larunbat goizera aldatzea planteatzen ari dira. “Arratsaldean, bero ikaragarria egiten du urte batzuetan. Goizeko hamarretan eginez gero, hori ere saihestu ahal izango genuke”, argudiatu du Muñozek.

Ibilbide gogorra, baina giro ederra

Edonola ere, aurten ekainaren 25ean, 18:00etan egingo dute San Martzialera igoera. 40.edizioa izango da. www.kirolprobak.com web gunean izena eman daiteke aspaldi, eta merkeagoa da, gainera (10 euro). Hala ere, jende askok lasterketaren egunean bertan egingo du, Urdanibia plazan (12 euroren truke). 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Kuadrillen arteko lehiarako, bost laguneko taldetan aurkeztu beharra dago. Uraskaren paretik irtengo da lasterketa, ohiko ikusleen animoen artean. Bitxikeria bat azpimarratu du Ibon Muñozek: “Badago kuadrilla bat, inguruko elkarte batean bazkaria izaten duena, eta urtero-urtero irteerara gerturatzen dena”.

Santa Elena kalean aurrera abiatuko dira korrikalariak. 3,6km-ko ibilbide gogorra osatu beharko dute. Ezaugarri hori da, antolatzaileen ustez, korrikalari gehiago ez erakartzeko beste arrazoietako bat. Ibon Muñozek eman ditu xehetasunak: “Hilerriko aldapa oso pikoa da, gero datorren jaitsieran ia arnasa hartzeko denborarik ere ez dago, eta hortik aurrera ez dago atsedenik”. Txingudi Tenis Klubaren sarreran ura ematen diete korrikalariei, ibilbidea eramangarriago egiteko. Helmugan, doako txistorrada eskaintzen dute. Musika ere ez da falta izaten, eta festa giroa sortzen da, beraz, ermitaren azpiko plazatxoan.

Gainditu ezineko errekorra

Juan Miguel Sodupe hondarribiarrak 1984an lortutakoa da San Martzialera igoerako markarik onena: 12:35. 32 urte luze daramatza ondorengorik gabe. “Oso marka ona da. Gainera, kontuan hartu behar da ibilbidea ez dela batere aldatu”, gogorarazi du Ibon Muñozek. Hurbildu ere ez dira egiten azken urteotan lasterketaren buru izan direnak. Eneko Garinek 13:50eko denbora egin zuen iaz, eta 13:58koa Ion Garrausek 2014an. Nola da posible? Muñozek Soduperen marka justifikatzeko argudio sendoa eman du: “Ia 14 minututik jaistea lortu zuen 5.000 metrotan”. Juan Miguel Sodupek berak arrazoi berdina eman du: “Gaur egun, Gipuzkoan ez dira horrelako markak egiten. Gure garaian maila handiagoa zegoen”.

Sodupek baieztatu du San Martzialen marka hobea egin ahal izan zuela. 1981ean inoiz baino hobeto ibili zela, baina lan istripu baten ondorioz, ez zuela sekula maila berdina berreskuratu. 1984an, Luis Yergaren errekorra apurtzera irten zen Juan Miguel Sodupe. “Bakarrik egin nuen lasterketa”, adierazi du. Azken txanpan bihurguneetako batekin nahastu zen, helmugara heltzear zegoela pentsatu zuen, eta beste bihurgune bat falta zitzaiola konturatu zenean, segundo batzuk galdu zituen: “Azkenean, gutxigatik hobetu nuen Yergaren denbora”. Hurrengo urtean, marka hobetzen ahalegindu zen, baina bero ikaragarria egin zuen, eta alde batera utzi behar izan zuen ideia. Hala ere, 12:35eko markatik urrun gelditu dira ondorengo irabazleak. “Gazteek esaten didate orduan ehun metro beherago egongo zela San Martzial”, aitortu du, barrez Sodupek. Urteak joan urteak etorri, helburu harrapaezina izaten jarraitzen du Soduperen markak.

Irungo txirrindularitzaren ibilbide luzearen ondarea da San Pedro Sari Nagusia

Oharkabean pasatzen da, irundar askorentzat, ekainaren 29an jokatzen den San Pedro Sari Nagusia-Irun Hiria Klasika. Bestelako ardurak izaten dituzte bizilagun gehienek, egun horretan. Irungo Txirrindulari Elkarteko kideek, ordea, goiz osoa ematen dute lasterketaren antolakuntzan. Nola edo hala eutsi nahi diote, ez baita edozein lasterketa. Afizionatuen mailako proba zaharrena da estatu osoan. Aurten, 97.edizioa izango du.

1888.urteko ekainaren 29an, duela 128 urte egin zuten, lehen aldiz, Irungo San Pedro eguneko lasterketa. Zabaltza plazaren inguruan antolatu zuten, eta maila handiko txirrindulariak hurbildu ziren, Baionatik, Bordeletik eta Paristik ere bai, besteak beste. "XX.mendean zehar etenak izan ditu lasterketak, gerrak zirela eta, adibidez", azaldu du Javier Uranga Irungo Txirrindulari Elkarteko kide beteranoak. Antolakuntzan ere aldaketak izan dira, hiriko klub ezberdinek ardura hartu duten heinean.

1896, hiriko lehen txirrindularitza elkartea sortu zen, gaur egungoaren izen berarekin: Club Ciclista Irunés. Haren ardura izan zen lasterketaren antolakuntza, 1901 urtean desagertu zen arte. Real Unionek hartu zuen beranduago, txirrindularitzako sekzioa izan baitzuen klubaren ibilbideko lehen urteetan. Beranduago, Club Ciclista San Miguel izeneko klubak antolatu zuen, urtetan. "1989an hartu genuen haien lekukoa", argitu du Urangak.

Lehen edizioan bezala, gaur egun ere Zabaltza plaza da San Pedro Sari Nagusiaren erdigune. Haren ondoan, Colon Ibilbideko errepidean egongo dira irteera eta helmuga. Elite eta 23 urtez azpiko mailetako txirrindulariak ariko dira lehian. 9:30etan irtengo dira, Nafarroan barrena ibiliko dira, eta lasterketaren azken txanpan, Erlaitz mendatea igo beharko dute, helmugaren bila jaitsierari ekin aurretik. Txirrindulari azkarrenak 13:30etan iritsiko direla aurreikusi dute. Zabaltza plazako kioskoan egingo dute sari banaketa.

Santiagotarrak izango da pregoilari

Jai giroa lehenago hasten bada ere, ekainaren 23ko pregoiak ematen die hasiera ofiziala San Pedro eta San Martzial festei. Aurten, Santiagotarrak Kirol Elkarteak egingo du agurra, udaletxeko balkoitik, San Juan bezperako sua piztu aurretik. "Oso kontent gaude, ilusio handia dugu", adierazi du Olatz Zabala presidenteak. 50 urte bete ditu aurten elkarteak. Pistako piraguismoan, ur-bizietan eta arraunean aritzen dira Santiagotarrak-eko kirolariak. Gaur egun, 700 bazkide inguru ditu elkarteak.

Ekainaren 23an 21:30etan egingo dute agurra. 19:00etan San Juan zuhaitza jarriko dute, Txistularien Udal Bandak emanaldia eskainiko du, eta Kemen Dantza taldeak soka dantza egingo du gero. Santiagotarrak K.E.ren agurraren ondoren, 21:45ean, alkateak San Juan sua piztuko du. Olatz Zabalak ez du baieztatu berak hitza hartuko duenik. Aurreratu du, hala ere, klubeko sekzio guztien ordezkaritza izango dela udaletxeko arkupeetan. "Berrogeita hamar urte hauetan jende asko pasa da klubetik, eta berezia izango den zerbait prestatzen ari gara", gaineratu du Zabalak.

Eskaintza musikala, Urdanibia plazan

Hiru kontzertu nagusi antolatu ditu Irungo Udalak sanmartzialetarako

Bad Sound System

Kulto Kultibo

Kontzertuen eskaintza izaten da, herrietako jaietako egitarauetan, arreta gehien erakartzen duen puntuetako bat. Denborarekin landu eta zaindu ohi dute udalek. Irunen ohitura den moduan, hiru izango dira jaietako musika emanaldi nagusiak. Hilaren 23an Kulto Kultibo eta Vendetta ariko dira, 25ean Descanso Dominical eta Bad Sound System, eta 28an, Sangre de Mono eta Efecto Pasillo. Urdanibia plazako oholtzan izango dira denak.

San Pedro eta San Martzial jaietan kontzertuak eskainiko dituzten taldeak aukeratzeko parte hartze prozesua antolatu du berriro Irungo Udalak. Aurten ordea, prozesuaren planteamendua aldatu du. Kultura arloak aldez aurreko aukeraketa bat egin du, aurrekontuaren eta agendaren aldetik udalak jartzen dituen baldintzak kontuan hartuta. Argudioak eman ditu Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak: "Iaz gehien bozkatutakoen zerrendatik 13.ak betetzen zituen baldintza guztiak, eta duela bi urte, 24.ak". 53 proposamen egin ditu udalak, hiru multzotan banatuta: euskaraz abesten duten taldeak ekainaren 23rako, tributu taldeak 25erako, eta gaztelaniaz abesten duten euskal taldeak edo estatuko beste lekuetakoak, hilaren 28rako.

> "Lehen aldiz joko dugu jaietan, eta ilusio handia dugu"
>
> Markel Zabal, Sangre de Mono

2.362 irundarrek bozkatu dute irun.org web gunean eta CBA kultur gunean. Vendetta ska/punk rock talde nafarra, Descanso Dominical Mecanoren abestiak jotzen dituen tributu taldea, eta Efecto Pasillo pop rock talde kanariarra izan dira bozkatuenak. Udalak kontratazioak gauzatu ahal izan ditu, eta Urdanibia plazan ariko dira zuzenean sanmartzialetan. Bakoitzaren aurretik, edo ondoren, Irungo talde batek joko du. Horretarako, proposamenak egiteko aukera irekia eman die udalak herritarrei. Sangre de Mono, Kulto Kultibo eta Bad Sound System izan dira bozka gehien jaso dituztenak, hurrenez hurren.

BIDASOA ascensores
Multimarka mantenua
Edonolako igogailuen instalazioa
Gertuko eta kalitatezko zerbitzua
Eskatu aurrekontua
943 059 053
Web gunea: www.ascensoresbidasoa.com
Helbidea: Sebastian Errazu, 1, Irun
MATXURA ZERBITZUA 24 ORDUZ

Etxeko taldeen inguruan

Bad Sound System talde beteranoa da jada. 2003an sortu zen, eta reggae, ragga eta dancehall estiloak uztartzen ditu. Hiruetan ezagunena da, Irunen, baita hiritik urrun ere. Sanmartzialetan makina bat aldiz jo izan du jada. Egitarau ofizialean, edo gehienetan, handik kanpo, Urdanibia plazako lurrean bertan. Sangre de Mono rap/ragga taldea 2009an sortu zen, eta La Rebelión del Simio diskoa argitaratu zuen 2014an. San Pedro eta San Martzial jaietako kontzertuak Ficoban izan ziren urte hartan, eta Urdanibiaren inguruan herri ekimen batek antolatutako jai alternatiboetan aurkeztu zuten diskoa. Irungo Udalaren egitarau ofizialean, berriz, ez dira sekula egon: “Lehen aldiz joko dugu jaietan, eta ilusio handia dugu”, onartu du Markel Zabal gitarra jotzaileak. Parte hartze prozesuan haien taldea proposatu dutenei eskerrak eman nahi izan dizkie.

Kulto Kultiborena ez da lehen aldia izango. Iaz ere, rap/reggae doinuez girotu zuten Urdanibia. “Plaza bete egin zen, eta oso gustura aritu ginen”, baieztatu du Aimar Setienek. Aurten, ordea, disko berria besapean ekarriko dute. La Mazeta izenburuarekin, hirugarren lana argitaratu dute jada. Diskoaren inguruko xehetasunak eman ditu Setienek: “Aurrekoak baino disko osoagoa da. Musika guk geuk ekoiztu dugu, eta letrak landuagoak dira”.

> “Jendeak ezagutzen gaitu, gainera bigarren aldiz ariko gara, eta berezia izango den zerbait eskaini behar dugu”
>
> **Aimar Setien, Kulto Kultibo**

Ekainaren 10ean aurkeztu dute, eta zuzenean defendatuko dute, etxean. “Irunen aritzea konpromiso handia da. Jendeak ezagutzen gaitu, gainera bigarren aldiz ariko gara, eta berezia izango den zerbait eskaini behar dugu”.

Jaien aurreko asteburuan ere, hitzordua izango dute musika zaleek Urdanibia plazan (Ekainak 17-18-19). Ostiralean, Supernova, Calle Beat, Kontraband eta Elena y la Verbena ariko dira (22:00). Larunbatean, MusikIrun maketa lehiaketako finala egingo dute (22:00). Finalisten ondoren, Grises elektropop talde gipuzkoarra ariko da. Igande eguerdian, Urko euskal kantautore beteranoak emanaldia eskainiko du, Irun Hiria Bandarekin. Bestalde, kontzertuetarako oholtzaren osagarri banaezinak izango dira txosnak. Sei egongo dira Urdanibia plazan, eta ondorengo entitateek jarriko dituzte: Ramutxo Trinkete Kluba, Pausu Media Gobernuz Kanpoko Erakundea, Santiagotarrak Kirol Elkartea, Mondragon Unibertsitatea, Emakumea eta Zinea elkartea eta Elatzeta Kultur Elkartea.

2016KO SANMARTZIALAK Caser Anakan

GORA SAN MARTZIAL!

18an
SAN MIGEL KONPAINIAREN ENTSEGUA
18:00etan egoitzan eta haren inguruan.

23an
IRUNGO BIDEOEN EMANALDIA
18:00etan egoitzako erabilera anitzeko aretoan.

24an
SAN JUAN
San Juan eguneko gurarien eskaera eta hilabeteko urtebetetzeen ospakizuna
18:00etan egoitzako balio anitzeko aretoan.

25ean
ANAKA KONPAINIAREN ALARDEA
18:00etan egoitzan eta haren inguruan.

27an
HILAREN 18KO ETA 25EKO ARGAZKIEN PROIEKZIOA
18:00etan egoitzako balio anitzeko aretoan.

28an
CASER ANAKAKO KANTINEREI OMENALDIA
17:30etan Eguneko Zentroan, San Vicete de Pauleko Majorette-ekin.

29an
SAN PEDRO
San Martzialeko Bingo berezia,
18:00etan solairu horian.

30an
SAN MARTZIAL
San Martzialeko Alardearen emankizuna, solairu bakoitzean, eta menu berezia.

1.800 lagun bilduko ditu Herri Bazkariak Ficoban

Ekainaren 25ean izango da Betti Gotti elkarteak proposatzen duen hitzordua

Alardeak alde batera utzita, Betti Gotti Euskara Kultur Elkarteak antolatzen duen Herri Bazkaria da Irungo jaietan jende gehien biltzen duen jarduera. Gaur egun, Ficoba erakustazokako hiru pabiloiak betetzen ditu, ia 2.000 gazterekin. 1.800 txartel saldu ditu Betti Gottik, eta hamarnaka dira antolakuntzan parte hartzen duten boluntarioak eta langileak. Tamaina horretako jarduera bat antolatzeak zailtasun handiak ditu, baina dagoeneko martxa hartua dutela onartu dute Betti Gottiko kideek.

Egun osoko egitaraua prestatu du Betti Gottik ekainaren 25erako. Lehenago, hilaren 18an, Herri Bazkariarekin batera antolatzen dituzten kuadrillen arteko olinpiaden lehen jardunaldia egingo dute. Iaz ere bi egunetan egin zituzten olinpiadak, eta esperientzia "positiboa" izan zela adierazi du Nerea Garciak. San Juan plazan egingo dituzte probak, 17:00etatik aurrera. Ondoren, batukada batek girotuko du ingurua. Sailkatzen diren taldeek, ekainaren 25ean, Herri Bazkariaren egunean izango dute finala. Urdanibia plazan egingo dute, hamaiketakoaren ondotik. Port Aventurara bidaia irabaziko du talderik onenak. 12:00etan Peña Poteo eta Abiyuan txarangak irtengo dira, eta 13:15etan kalejirari ekingo diote, jendea Ficobara gerturatzeko.

Joan den urtean bezala, aurten ere erakustazokako hiru pabiloiak hartuko ditu Herri Bazkariak. Lehenengo bietan bazkaltzeko mahaiak egongo dira. Batean 18 urtetik 23ra artekoak, bestean, berriz, 24tik gorakoak. Jende asko bilduko da batera bazkaltzen, hortaz, jendeak errespetuz joka dezan eskatu dute antolatzaileek: "Zerbitzariei laguntzea, boluntarioen argibideak jarraitzea, bazkarian zehar zutik ez jartzea edo janaria alde batetik bestera ez botatzea". Juncal Eizaguirre Irungo Udaleko Kultura ordezkariak ere jarrera adeitsuaren beharra azpimarratu du: "Herri Bazkaria posible egiten duen jendea boluntarioa da. Haiek ere festan daude, ondo pasa nahi dute, eta errespetua merezi dute". Betti Gottiko egungo kideen, kide ohien eta haien lagunen eta ingurukoen artean, 30 bat boluntarioko taldea ariko da Herri Bazkarian.

Ficobako hirugarren pabiloian, bazkariaren ondorengo dantzaldia egingo dute. Haitzama taldea eta DJ bat ariko dira arratsaldean zehar, musika emanaldiak eskaintzen. Diseinuen lehiaketako sariak ere banatuko dituzte bertan. Aurten, kamisetez gainera, kuadrillen pankarten edo banderen diseinuak ere baloratuko dituzte. "Diseinu merkeagoak izango direlakoan, parte hartzea sustatu nahi dugu", azaldu du Nerea Garciak. 20:30etan, bueltako kalejirari ekingo diote, Burrunba elektrotxarangarekin. Eguneko tarte horretarako, boluntario gehiago behar dituztela nabarmendu du Ainhoa Ruanok: "Musikariek haien lana egin dezaten, babestu egin behar ditugu". Interesa duenak herribazkaria@bettigotti.com helbide elektronikora idatzi dezake, edo Betti Gottirekin sare sozialen bidez harremanetan jar daiteke, bestela.

Elkartasun keinuak, eta etorkizuneko erronkak

18 eurotan saldu dituzte aurten Herri Bazkariko txartelak. Bakoitzeko euro bana, haien herrialdeetatik ihesi ari diren errefuxiatuentzako bideratuko dute, zehaztu ez duten Gobernuz Kanpoko Erakunde baten bidez. Bestalde, parte hartzaile bakoitzak aurten jasoko duen zapiak Antxeta Irratiaren logoa izango du, haren hamabosgarren urteurrena ospatzeko. "Euskal hedabideei bultzada eman nahi diegu", argitu du Ainhoa Ruanok. Berde argia izango da aurtengo zapiaren kolorea.

Hurrengo urteari begira, lanketa sakon bat egiteko prest dago Betti Gotti elkartea. Herri Bazkaria hirira ekartzeko helburua jarri du, eta horretarako urratsak ematen ari da jada. Hausnarketa egin dutela, eta ideiak badituztela aurreratu du Nerea Garciak. Aitortu du, hala ere, ia 2.000 lagun hartzeko moduko leku aproposa topatzea dela zailtasunik handiena. "Udalaren laguntza eta babesa eskatzen ditugu", erantsi du. Betti Gottiren erronkak aurrera egiten baldin badu, Ficobako azkena izan daiteke 2016ko Herri Bazkaria.

Belaskoenea LH2

2. mailan "Herriak eta hiriak" proiektoa landu dugu. Hau dela eta Irungo armarria aztertu dugu eta hona hemen emaitza. Zuek, ba al zenekiten nolakoa den? Irungo banderan dagoen irudia da eta udaletxeko eraikinean ikus daiteke.

Hondo gorri batean gainean zilar kolorezko gaztelu bat dago non horrmaren barruak ondo bereizi daiteken. Lehiokeia atea urdinak dira. Dorreen gainean bi kurutzo agertzen dira. Goiko aldean bara batera eta zinta batek bat dauka "Vigilantiae Custos" idatzita dago. Inguruan lurralde daude.

BELASKOENEA LH2

Txingudi Ikastola LH3

KUTXA PASA KATEAN JARDUERA

Euskararen eguna ospatzeko Txingudi ikastolako Lehen Hezkuntzako Ikasle guztiok, katean jarri ginen eta elkarri euskararen erabileraren inguruko mezuak eman genizkion, kutxa dotore batean sartuta.

Lehendabizi mezuak gelaka mezuak idatzi genituen. Gero, maila bakoitzetik mezu bat aukeratu genuen eta kutxan sartu genituen. Ondoren kalera atera ginen guztiok eta ilaran jarri ginen. Seigarren mailako ikasle batek erredoblea jo zuen eta elkarri kutxa pasatzen hasi ginen.

Lehen Hezkuntzako ikasle guztien eskuetatik pasa ondoren , zuzendariak kaxa ireki zuen eta maila bakoitzeko arduradunek irakurri zituzten.

Jarduera honekin lortu nahi genuen euskara ikastolako hizkuntza dela jakinaraztea , euskara denok lotzen gaituen hizkuntza dela azpimarratzea eta elkarri euskaraz egin behar diogula .

Amaitzeko, trikitilari eta pandero-joleekin biribilketak egin genituen.

Lorea Agerralde 6. B

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A andreari jasoa (1959-VII-26). (El Bidasoa, 1959-VIII-8)

San Martzial betti, parrokira, San Pedro egunian

Esátentzuen gure amak, lenago San Pedro arratsaldian ekartzentzutela San Martzial betti, parrokira.

Eta gero San Martzial goizian eramatentzutela alardian gotti.

Eta gero norbattek, burlan ero, gauzan bat itsusiya esán eta urrengo urtian joantzirela billa eta ezintzutela muittu betti ekártzeko.

Eta oraiñ eramaten duté bandéra bat.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Ekintzak

- Informazio jardunaldia gazte bermearen erregistrora sartzeari buruz

- Zer? Irungo Igaztek Gazte Bermeari buruzko saio bat emango du El Espazion.

Gazte Bermearen Erregistroa europar ekimen bat da, eta 30 urtetik beherako gazteei lan merkaturako sarrera errazteko asmoa du.

Informazio saioan, zeintzuk izena eman dezaketen azalduko dizugu, zein onura eduki dezaketen enpresek izena emandako gazteak kontratzerakoan eta nola alta eman dezakezun Gazte Bermearen Erregistroan.

- Noiz? Ekainak 22

- Ordua? 9:00etan

- Informazio gehiago eta izena emateko? www.elespazio.com

Gaztelekuko jarduerak uztailean irun.org/igazte

8: Bainua putzuetan (Irun)
13: Zoorbal /Jaibal
15: Bidasoako jaitsiera
20: Zugarramurdi
22: Paddle Surf (Hondarribian)
27: Aquapark (Landetan)

- 12-25 urte bitarteko gazteei zuzendua.

- Izen emateak: uztailaren 6ra arte.
- Gaztelekuan (gehiagogazteleku@irun.org) eta IGazten (igazte@irun.org WatshApp: 607 771 173.

- 18 eta 30 urte bitartekoa al zara? Goazen, bada!!!

- Zer? Aprobetxa ezazu Estoniako, Kroaziako, Letoniako eta Italiako gazteekin elkarrekin bizitzeko esperientzia!!!

Zure nortasunaren garapen harmonikoarekin lotutako gaiak landuko ditugu!!!

- Noiz: ekainaren 26tik 29ra eta abuztuaren 8tik 16ra.

- Tokia: Riga (Letonia).

- Argibide gehiago hemen: Gazteen Nazioarteko Mugikortasunaren Zerbitzua CBA Kultur Gunea, -1 solairua, San Juan plazan (astelehenetik ostegunera, 17:00 - 19:30 eta asteartetan, 10:00 - 14:00).
Telefonoa: 943 505 446.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

DISKOFESTA

Osteguna, ekainak 30, DISKO-FESTA
Urdanibia plazan 22:30etatik aurrera

Lan bila! (egunero)

- La bila zaude? Lanpostu eskaintza egunero eguneratzen da.

-Non? http://www.irun.org/igazte/

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

JAI EGITARAUA

EKAINAK 23

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Arretxe-Ugalden, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Behobian, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
12:00 Biteri plazan, MENDIBIL PATATA TORTILLA TXAPELKETA.
19:00 San Juan plazan, SAN JUAN ARBOLA jartzea.
19:30 A. Anguera plazatik irtenda, BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK.
20:45 San Juan plazan AURRESKUA, KEMEN DANTZA TALDEAren eskutik.
21:30 Jaietako AGUR OFIZIALA Udaletxetik: SANTIAGOTARRAK K.E.
21:45 ALKATE jaunak sua piztuko du.
22:30 Erdialdean, LOS PEROLAS FANFARREA.
22:30 Urdanibia plazan kontzertua: KULTO KULTIBO.
23:00 San Juan plazan, "TRUMOIAK" IKUSKIZUNA.
23:30 Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA: MARIACHI ELEGANCIA MEXICANA taldea.
00:15 MUSIKA Urdanibia plazan: VENDETTA.

EKAINAK 24

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Belaskoenea ikastetxean, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Eguzkitza ikastetxean HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
12:00 IRUN HIRIA-SAN MARTZIAL ERAKUSLEIHO TXAPELKETAKO sari-banaketa.
16:30-21:30 Urdanibia plazan GAZTEFESTA.
18:00 San Juan plazan, TXALAPARTA EMANALDIA ETA TAILERRA.
18:30-21:00 KURPIL KIROLAK AFIZIONATUEN ESKU PILOTA TXAPELKETA, Uranzu pilotalekuan.
20:00 Irungo Argazkigintza Elkartearen lokalean SAN MARTZIALEKO ARGAZKI TXAPELKETA HERRIKOIko sarien banaketa.
20:00 San Juan plazan, ZIRKO IKUSKIZUNA, THE FUNES TROUPE taldearekin.
20:00 Santiagoko Euskal Jai pilotalekuan, KEMEN DANTZA TALDEAren emanaldia.
23:30 Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA: MCKENSY'S CLAN BAND.

EKAINAK 25

9:00-20:00 San Martzial mendian, IRRATIZALEEN ERAKUSTALDIA.
9:00-20:00 Artaleku kiroldegian, SQUASHEKO SAN MARTZIAL SARIA.
9:00 Gal futbol zelaian, ALBERTO GORRIZ FUTBOL 7 TXAPELKETAKO FINALAK.
9:00-19:00 Padel Indoor Bidasoa klubean, IRUN HIRIA PADEL TXAPELKETAKO FINALAK.
11:00-13:00 Ramuntxo Berri udal trinketean, PALA EGOKITUKO TXAPELKETA.
10:300-13:30/17:00-20:00 Txanaleta plazan, LORATEGI TRENAREN ZIRKUITU ERAMANGARRIA.
11:00 Urdanibia plazan, KOADRILEN OLINPIADETAKO FINALAK.
11:30-13:30 Ramuntxo Berri udal trinketean, TRINKETEKO SAN MARTZIAL TXAPELKETAKO finalak.
11:30-13:30/16:00-20:00 Anakan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
11:30-13:30/16:00-20:00 Palmera Monteron, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
12:00 Junkal plazatxoan, ERROMERIA: MUTXIKOAK ETA EUSKAL DANTZAK.
13:15 Urdanibia plazatik KALEJIRAN aterako dira KOADRILAK.
14:15 Ficoban HERRI BAZKARIA.
16:30 Erromes plazan, BINAKAKO. PUZZLE TXAPELKETA.
16:30 ROLL SKI IGOERA ERLAITZERA, Errota Zaharretik irtenda.
18:00 Urdanibia plazatik abiatuta, SAN MARTZIALERA IGOERA KORRIKA.
18:00 Junkal plazatxoan, ZIRKO ETA UMORE IKUSKIZUNA. ZIRIKA ZIRKUS taldearekin.
18:15-20:00 Uranzu pilotalekuan, HALTEROFILIAKO NAZIOARTEKO SAN MARTZIAL TXAPELKETA.
19:00-2:00 Santiagoko Euskal Jai pilotalekuan, GAZTE GUNEA.
20:00 Zabaltza plazan eta inguruetan JOSTALLU fanfarrea ibiliko da.
20:30 KOADRILAK Ficobatik ITZULIKO dira KALEJIRAN, BURRUNBA ELEKTROTXARANGAREKIN
22:30 Jenaro Etxeandia plazan, FESTAN BLAI.
23:30 Urdanibia plazan, MUSIKA. MECANOREN OMENEZ, DESCANSO DOMINICAL taldearen emanaldia.
00:00 MUSIKA ANIMAZIOA Zabaltza plazan eta Kale Nagusian. BATUKADA BRINCADEIRA.
01:30 Urdanibia plazan, BAD SOUND SYSTEM eta artista gonbidatuak.

EKAINAK 26

8:00 MENDI IBILALDIA, Urdanibia plazatik abiatuta.
9:00 Junkaleko plazatxoan, HAURREN MARRAZKETA ETA PINTURA LEHIAKETA.
9:00 Urdanibia plazan, PIL-PIL ERAKO BAKAILAO TXAPELKETA.
9:00 Gal futbol zelaian, ALBERTO GORRIZ FUTBOL 7 TXAPELKETAKO FINALAK.
9:00-19:00 Padel Indoor Bidasoa klubean, IRUN HIRIA PADEL TXAPELKETAKO finalak.
17:00 Junkaleko plazatxoan, JAIALDIA eta HAURREN MARRAZKETA ETA PINTURA LEHIAKETAKO SARI-BANAKETA.
19:00 Amaia KZn, "El dúo de la africana" ZARTZUELA.
19:00 San Juan plazaren inguruan GAUERDI fanfarrea ibiliko da.
19:00 Zabaltza plazan eta inguruetan PEÑA POTEO TXARANGA ibiliko da.
19:00-01:00 Santiagoko Euskal Jai pilotalekuan, GAZTE GUNEA.
20:15 Urdanibia plazan, HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA, TOMAXEN ABENTURAK taldearen eskutik.
22:30 PhotoGAUA, Jenaro Etxeandia plazan.

EKAINAK 27

11:30-13:30/16:00-20:00 Antzaran plazan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
12:30 Jenaro Etxeandia plazatik TRENA IRTENGO DA FICOBARA, Adinekoen Omenezko Bazkarira.
14:00 ADINEKOEN OMENEZKO BAZKARIA, FICOBAn.
18:00 Urdanibia plazan, BERTO MAGOAren ikuskizuna.
19:00-01:00 Santiagoko Euskal Jai pilotalekuan, GAZTE GUNEA.
20:00 San Juan plazan, FAMILIA ANTZERKIA, TRAPU ZAHARRA konpainiarekin.
21:00 San Juan plazan eta inguruetan, PEÑA POTEO TXARANGA ibiliko da.
22:30 Jenaro Etxeandia plazan, FESTAN BLAI.
22:45 Dunboako kanalean, SLALOM PARALELOA, finala.

EKAINAK 28

9:30 "IRUN HIRIA" BINAKAKO IBILALDI NEURTUA, Luis Mariano Pentsiodunen Etxetik abiatuta.
18:30 Alberto Anguera plazatik Irungo Atseginako BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK irtengo dira.
22:30 MUSIKA Urdanibia plazan, SANGRE DE MONO taldearekin.
23:30 Dunboako Martxoaren 8a kalean, VERBENA CAMP; CAFÉ IRLANDÉS orkestra.
23:30 MUSIKA, San Juan plazan, JAMAICA SHOW orkestra.
00:00 MUSIKA ANIMAZIOA Zabaltza plazan eta Kale Nagusian. EUSKORLEANS DIXIE BAND taldea.
00:15 Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.
00:30 MUSIKA Urdanibia plazan, EFECTO PASILLO taldearekin.
01:00 MUSIKA ANIMAZIOA Zabaltza plazan eta Kale Nagusian: TROPIQUE DU CANCER.

EKAINAK 29

8:00 Hainbat auzotan, SAN PEDRO EGUNEKO DIANA, "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik. Txingudiko Dultzaineroek DIANA joko dute.
9:30 SAN PEDRO SARI NAGUSIA txirrindularitza lasterketa.
10:40 UDALBATZA San Juan plazatik Junkaleko Elizaraino joango da.
11:00 Meza Nagusia Junkaleko elizan. Eskaintzan "TU ES PETRUS" abestuko da.
12:00 AURRESKUA dantzatuko du UDALBATZAK.
12:30 San Juan plazan SAN PEDRO EGUNEKO KONTZERTUA: Irun Hiria Musika Banda.
21:00 Txanaleta plazatik, KALEJIRA.
21:30 Erdialdean, LOS TRANQUILOS FANFARREAren irteera.
22:00 LASTARGIEN EKINTZAREN OROITZAPEN EKITALDIA Gipuzkoa Hiribideko Anbulatoriotik irtenda.

EKAINAK 30

11:00 ERROMERIA San Martzialen eta **12:00etan** 1522ko Zin Sekularra beteko du Udalbatzak.**12:30ean,** Meza.
22:30 DISKOFESTA Urdanibia plazan.
23:00 Zabaltza plazan, QUINTETO SIBONEY.

UZTAILAK 1

8:00 Urdanibia plazan, GANADU LEHIAKETA. **10:00**etan, TRIKITILARIAK eta ondoren BERTSOLARIAK. **12:00**etan, HERRI KIROLAK. **13:00**etan, GANADU LEHIAKETAKO SARI banaketa. **18:00**etan, BIDASOKO DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA. Ondoren, ERROMERIA.
18:00 Urantzu pilotalekuan, ESKU PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK.
22:00 Erdialdean, LOS PEROLAS eta ELIZATXO fanfarreen irteera.
22:45 Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.
23:15 Zabaltza plazan: MONOLOGOEN JAIALDIA. ESTHER GIMENO eta TXABI FRANQUESA.

EKAR
teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun Kolon
Azalera 151 m², 5 gela, bainugela 1, 2 komun, egongela, sukaldea, 3 balkoi, hegoalderuntz, eguzkitsua.

Ref: 04472 195.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.

Ref: 03511 165.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portu
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, berokuntza eta bista politekin.
Pisu erreformatua.

Ref: 04457 179.000 €

Pisua salgai Irun Larrehaundi
Azalera 77 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, berokuntza.
Eraikuntza eta pisua erreformatuak.

Ref: 04464 125.000 €

Pisua salgai Irun Belaskoenean
Azalera 70 m², 3 gela, bainugela, egongela sukaldearekin, 3 balkoi, trastelekua, igogailua, berokuntza, hegoalderuntz eta oso eguzkitsua.

Ref: 04493 145.000 €

Pisua salgai Irun Kolon
Azalera 70 m², 2 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza, igogailua, trastelekua eta 41 m²ko terraza.

Ref: 03592 230.000 €

Pisua salgai Irun San Miguel
Azalera 103 m², 3 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, trastlekua, eguzkitsua eta bista politekin.

Ref: 04481 235.000 €

Pisua salgai Irun Alde-Zaharra
Azalera 60 m², gela 1, bainugela 1, egongela, sukaldea, berokuntza.
Eraikuntza eta pisua erreformatuak.
2. pisua igogailurik gabe.

Ref: 04384 90.000 €

Jatetxea salgai Irun Olaberria Labeko Etxea
Azalera 770 m², aparkalekua, terraza.
Jatetxea aparte, bi etxebizitza ditu, bakoitzak 70 m²ekin.

Ref: 04250 Kontsultatu

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN

AMAIA MARTIN ERASO, San Pedro eta San Martzial jaietako kartelaren egilea:

“Antzinako karteletan oinarritu nahi izan dut”

“Cantinera” izeneko lanak irabazi du 2016ko San Pedro eta San Martzial jaietako kartelen lehiaketa. Amaia Martin Eraso da egilea. 29 urte ditu, eta Arte Ederretako ikasketak egin ondoren, web diseinuan edo 3D animazioan formatzen jarraitu du. Bideojokoen eta diseinu grafikoaren inguruan lan egin izan du.

Lehen aldiz parte hartu du Martinek Irungo jaietako kartelen lehiaketan. Lehen fasean, bost kartel onenen artean aukeratu du bere lana, aurten estreinakoz aritu den batzorde artistikoak. Gero, herritarren bozketaren fasean, 1.247 bozka jaso ditu, bigarren sailkatuak baino 82 gehiago. Hori dela eta, “Cantinera” lana izango da 2016ko jaiak iragarriko dituena. Gainera, 1.000 euroko saria jaso du Amaia Martinek. 200 euroko accesita Cristian Crowleyri eman dio batzorde artistikoak, “San Mortxis” lanagatik.

Nolatan erabaki duzu aurten kartelen lehiaketan parte hartzea?

Duela hiruzpalau urte Hondarribikoan parte hartu nuen, baina ez nuen zorterik izan. Irunen, lehen aldia izan da aurtengoa. Askotan pentsatu izan dut parte hartzea, baina inoiz ez dut ideia konkreturik izan. Aurten bai, ordea, eta horregatik animatu naiz. Etxekoen bultzadak ere eragina izan du.

> “Ia saihestezina da Alardeko irudiak hautatzea”

Nola aurkeztuko zenuke, hitzez, zure kartela?

Aurreko urteetan, argazki asko egon izan dira. Horregatik, diseinuaren bidetik jotzea pentsatu nuen, hori baita, gainera, nire espezialitatea. Antzinako karteletan oinarrituta, kubismoan edo bauhaus eskolan inspiratutako kartel bat egin nahi izan dut. Forma eta kolore lauak hautatu ditut.

Gehienek hautatzen dituzue Alardeko irudiak. Zergatik?

Nik zenbait proba egin nituen Alardeko pertsonaia ezberdinekin, eta Kantinerarena iruditu zitzaidan erakargarriena. Diseinuarengatik eta kolorearengatik, aukera onena zen.

Aurten, lehen aldiz, batzorde artistiko batek aukeratu ditu kartelik onenak, aurreneko fasean. Ondo iruditzen zaizu?

Bai, positiboa dela uste dut. Artearen munduko jendea da, eta irizpide batzuen arabera egin dute lehen aukeraketa. Beharbada zorrotzegia izan da, bost kartel besterik ez baitira gelditu. Hori bai, lehen fasea gainditu dugunontzat oso pozgarria izan da. Kartelaren inguruko zalantza handiak nituen, eta batzorde artistikoak nire lana baloratu izanak ilusioz bete ninduen.

Nola jarraitu zenuen herritarren bozketa?

Beste guztiek bezala, pentsatzen dut. Botoen bilakaera jarraitu nuen, eta kartel bakoitzari buruzko iruzkinak irakurri nituen. Denetarik ikusi dut. Dena den, oso eskertuta nago, babes handia jaso dudalako. Nire inguruko jendea asko mobilizatu da, baina beste jende askok ni ezagutu gabe bozkatu du, kartela gustatu zaiolako, besterik gabe. Eskertzekoa da hori.

> “Batzorde artistikoak nire lana baloratu izanak ilusioz bete ninduen”

Zer sentitzen duzu kartela kalean ikusterakoan?

Asko pozten nau. Egindako lan baten aitortza da. Sari honek asko animatu nau diseinuaren inguruan lan egiten jarraitzeko.

Alarde Tradizionaleko Kantinerak 2016

Irene Berridi
Danborrada

Ainhoa Izquierdo
Banda

Junkal Torres
Zalditeria

Andrea Iturria
Behobia

Eva Sanchez Bentak

Nagore Tejedor
Meaka

María Victoria Oronoz
Bidasoa

Laura Mayoral
San Miguel



Aitziber Martiarena
Olaberria

ARGITZE ZENTROA

ESTIMULAZIOA

-Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan:
iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostena
TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa
EKINTZAK: Lorezaintza tailerra, zineforuma, mahai-jokoak, esku-lanak eta abar

PSIKOLOGOEN ELKARGOKIDE
Santiago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

TABERNA - JATETXEA

MARIÑO

GALIZIAKO ESPEZIALITATEAK
- Banketeak
- Jaunartzeak
- Despedidak

ATSEDENALDIA: Astelehen eta ostegun arratsaldean

Zubelzu, 6 - IRUN - Tel 943 61 50 01

Edurne Aramburu
Ama Shantalen

Maider Amundarain
Anaka

Sonia Villaverde
Buenos Amigos

Estibaliz Gonzalez
Uranzu

Maialen Belzunce
Santiago

Marta Martínez
Lapitze

Iciar Gallastegui
Real Union

Laura Guillen
Azken Portu

Alba Aguado
Belaskoenea

Monica Indias
Artilleria

CLINICA DENTAL
Ramón Amantegui Ibargoyen
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
INPLANTEAK ✔ PERIODONTZIA ✔ HORTZ-ESTETIKA
PADI
Lope de Irigoyen, 9 - 1. - IRUN - Tel: 943 61 86 34.
www.clinicadentalamantegui.com

MBE
MAIL BOXES ETC.
Gora San Martzial!
BIDALKETAK mundu guztira
DISEINUA eta inprimaketa
ETA ABAR
Pinudi kalea 21 - IRUN
Tel: 943 667 995
mbe174@mbe.es
www.mbe.es

Alarde Publikoko
Kantinerak 2016

Hodei Sagarzazu
Danborrada

Iraia Gordo
Banda

Irunero

Iruneroko lantaldeak San Martzial jai
zoriontsuak opa dizkie irundar guztiei

Gora San Martzial!!!!

Irati Icardo
Bidasoa

María Peregrina
Olaberria

Saioa Cuñado
Ama Xantalen

Izaro Tranche
Lapitze

Irati Noain
Anaka

Olatz Ugarte
Santiago

Ane Unanue
Zalditeria

Sara Mariezkurrena
Landetxa

Irati Beorlegi
Artilleria

SUPER AMARA

GORA
SAN
MARTZIAL!!